

3. Praktika- Nahasteak banantzeko metodoak.

(* asteriskoz markaturikoak egin behar duzu)

2.1- Dekantazioa (*):


Dentsitate desberdineko bi likido nahastezin banantzeko metodoa da.

Adibidez, olio eta ura. Prozesu honetan inbutu berezi bat erabiltzen da: **dekantazio-inbutua** (irudian).



Inbutu honek **balbula bat** du behealdean; likidorik dentsitatea ateratzen (ontzi batean bilduko dugu) bukatu ondoren, itxiko dugu balbula hau eta horrela bi likidoak banandu ditugu bata ontzian dugu eta bestea dekantazio-inbutu barnean.

2.2- Lurrinketa: Kristalizazioa(*)



Uretan disolbatutako solidoak banantzeko metodoa da.

Pisatu **25 g** Kupre Sulfato eta hauspeakin-ontzi batean **50mL** urarekin disolbatu.


Errazago disolbatzeko berotuko dugu disoluzioa (Disolbagarritasuna handitzen da eta, berotuz). Orain, tanta bat hartu eta mikroskopiopean jarri behar duzu: behaketa egin (minutu batzuz) Zer gertatu da?

Disoluzioa (gainontzeko bolumena) kristalizadore batera pasatu eta:


Denbora, espazio egokia eta atsedena emango diozu. **Solido kristalino bat "jaioko da"**.

2.3- Destilazioa: Irakite puntu desberdina duten bi likidoak banantzeko metodoa aproposa da.

Testuan dagoen informazioa irakurri eta **laborategiko instalazioa marraztu** (*) zure koadernoan, elementu desberdinen izenak argi adierazita.



2.4- Iragazketa: Prozesu honen bidez, solido disolbatuzina eta likido bat banantzen dira. Likidoa material porotsuan zehar pasatzen da, betiere kontuan hartuta poroek partikula solidoak baina tamania txikiagoa izan behar dutela.




2.5- Zentrifugazioa:

Metodo hau jalkitze azeleratua da. Zure etxeko garbigailuak prozedura hau erabiltzen du ura eta arropak banantzeko eta lehortzeko.



2.6- Kromatografia: 2.Lab praktikan egin duzu.



2.7- Bereizketa magnetikoa (*):

Bi solido banantzeko metodoa da; bietako bat ez da erakarria izango eremu magnetiko batean baina bestea bai.



2.8 Baheketa: Tamaina desberdineko partikula solidoak banantzeko; bahearen sarearen tamaina egokitu behar dugu kasu bakoitzean, partikulen diametroarekiko.



Distilazioa egiteko instalazioaren **marraskia:**

Krsitalizazioa: sortutako kristalaren **marraskia (mikroskopioz behatuta):**